

#POBREZIARIKEZ

BABES SOZIALERAKO SISTEMA PROPIO ETA PUBLIKOA ORAIN!

POBREZIAREKIN AMAITUKO DUEN DSBE BATEN ALDE



**BABES
SOZIALERAKO
SISTEMA PUBLIKO
PROPIOA ORAIN!**

**Urriak 17 de octubre
11:00**

**Andra Mari Zuriaren Plaza
Plaza de la Virgen Blanca
Gasteiz**

#Cidefendatu

Por una RGI que acabe con la pobreza
#PobreziarikEZ

Eusko Herriko Eskubide Sozialen Kartak

Eusko Herriko Eskubide Sozialen Kartak, Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabiltzaileen eta DSBEaren jasotzaileen eskutik, Pobreziaren kontrako Nazioarteko egunean, Parlamentuaren aurrean Eusko Jaurlaritzak aplikatzen ari den politika antisozialak salatuta nahi ditu. Hain zuzen ere, politika hauek biztanleriaren gehiengoaren pobretzea dakarte, gutxiengo bat aberasten den bitartean.

Eusko Jaurlaritzak egindako **Pobrezia eta ezberdintasun sozialen inkestan** azaltzen da

pobrezia larria enkistatzen ari dela eta 104.177 pertsoneri eragiten diela, EAeko biztanleriaren %4,9-ari, hain zuzen ere. ikerketa hau egiten denetik jaso den ehunekorik altuena da.

350.668 pertsona daude pobrezia arriskuan, EAeko biztanleriaren %16,5. Bestalde, mantentze-pobrezia %7,1ari eragiten dio, 151.112 pertsonari, alegia. Bien bitartean, hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztenen kopurua %18,4koa da, 394.266 pertsona daude egoera horretan.

Pobrezia zein prekaritateak emakume aurpegi duela erakusten digun beste adierazle bat da emakume gehiagok babes sozialerako laguntzak baliatzen dituztela da. Etxerik gabeko pertsonen inkestako datuen arabera (EUSTAT, 2012) %27,3ak ez du inolako diru-sarrerarik eta horietatik gehienak gizonak dira (19, 5 emakumeak eta 29, 1 gizonak). Emakumeen artean, diru-iturri nagusia DSBE da (%19,0), gizonena baino ehuneko handiagoa (%11,6). Gaur pasatzeko lekua kontutan hartuz, emakume gehiago bizi dira ostatu kolektiboetan (%48,8) gizonak baino (%37,8).

Datu hauek milaka etxeetan eragina duten egoera dramatikoak ezkututzen dituzte. Hauek ikusarazten saiatuko gara Euskal Enplegu Zerbitzuko erabiltzaileen edo prestazio sozialen jasotzaileen partehartzearekin, eta gaur goizean Eusko Jaurlaritzaren aurrean elkarretaratzea egingez.

Etxebizitza gabeko pertsonen bizi duten egoera da murrizketa eta bazterketa sozialaren beste adibide bat. Eusko Jaurlaritzak egindako azken ikerketaren arabera EAEn 285 pertsona bizi dira kalean. Honek ondorio larriak ekar ditzake, irailaren 22an Barakaldoko kutxazain batean hil zen pertsonarena bezala. Pertson hark Hamza Mimoune zuen izena, 34 urte zituen, eta Barakaldon bizi zen 2015 urteaz goertzik.

Bestetik, emakume gutxiago kalean bizitzen ikusi arren, emakume gehiago dira etxebizitza ez-seguruetan daudenak, adibidez: kaleratze arriskuan, senide edo lagun baten etxean behin behinekotasunean, alokairu prekarioan, indarkeria matxista egoerara lotuta etxebizitza mantentzearen edota etxebizitza desegokietan edota txabolatan nahiz bizigarritasun arautegia betetzen ez duten tokietan.

Pobrezi eta prekaritate egoera lazgarri hauen aurrean ikusi dugu Eusko Jaurlaritzak prestazio sozial ezberdinak murrizteko asmoa duela:

■ *Etxebizitza legalki okupatzeko eskubide subjektiboa edota etxebizitzarako prestazio ekonomikoa erregulatzen duen dekretorearen aurreproiektuaren erredakzioa.* Azken honek hainbat murrizketa ezkututzen ditu eta modu zuzenean eragingo die Lanbidek kudeatzen duen Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten 28.291 elkarbizitza unitateei; eta herrietako zerbitzu sozialen bidez Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzen duten 7.500i.

- Etxebizitza beharrak bermatzeko prestazio ekonomiko berri bat sortzeko aitzakiarekin, etxebizitza duinerako sarbidea bermatzeko gaur egungo prestazioak ezabatzen dira (Lanbideren EPO eta udaletxeetako GLL) deuseztatzea dakar. Etxebizitzarako prestazio berriak baldintzen gogortze bat ekarriko du.

■ Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdiek (EAK eta PSOE) osatu duten DSBEren erreforma proposamenaren ondorioz, berriz ere, murriztuko dira prestazio sozial honi lotutako eskubideak (2008an prestazio jasotzeko baldintzak gogortu zituzten eta 2017an Lanbidek prestazio hauei ez zien aplikatu SMIren igoe-ra). Eusko Jaurlaritzak DSBE-n aplikatu nahi dituen murrizketa berriek zailtasunak ekarriko ditu pobreziaekin amaitzeko orduan eta bizi-raupenerako oinarritzko minimoetara iristeko.

- Etxebizitza batean bizi diren pertsona guztiak konbidentzia unitate bakar bat direla kontsideratu nahi dituzte, etxebizitza bakoitzeko prestazio bakarra egoteko.

- Zenbatekoa lan errealitateari lotutako elementuetatik desbinkulatzen dute, hala nola Gutxieneko Soldata Interprofesionala edo KPIa bezalako elementu objetiboetatik.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak aplikatutako politika neoliberalak gure herri eta auzoetako pobrezia errealitatearen hazkuntza dakarte.

Badakigu pobrezia ez dela krisiaren ondorio natural bat. Alderantziz, lan baldintzen kaskartzeak, zerbitzu publikoen deuseztatzearekin batera, politika neoliberalen helburu eta logikari erantzuten die. Hauek, hala behar dutelako, pobrezia zabaltzen jarraitzen dute, Confebask, eraikuntzako enpresa edo Kutxabank bezalako finantza erakundeek irabaziak handitu ahal izan ditzaten.

Horregatik, pobrezia aurkako nazioarteko egunean, eta DSBEaren erreformaren *-Inklusio sozialerako eta diru sarrerak bermatzeko abenduak 23ko 18/2008 legea-* aurrean pobrezia aurka benetan egingo duen legea eskatzen dugu: pobre bakar bat ere gera ez dadin DSBE gabe; eta DSBEa jaso ostean inor ez dadila pobre izan.

Badira alternatibak murrizketa hauek ekarriko duten pobrezia igoera hau ekiditeko. Inposatu nahi zaigun bazterketa sozialaren eta bizitzaren prekarizazioaren aurrean gure apustua Babes Sozialerako Euskal Sistema publiko, duin eta kalitatezkoa da. Murrizten ez duen sistema bat. Kalitatezko prestazio eta zerbitzuak bermatzen dituen sistema bat, bizitza proiektu duin bat aurrera eramatea ahalbidetzen duena.

Hau da aldarrikatzen dugun babes sistema erreforma. Honen alde mobilizatzen gara Eusko Jaurlaritzaren aurrean pobrezia aurkako nazioarteko egunean.

MURRIZKETA POLITIKEN AURREAN, POBRETZE OROKORRA ETA LARRIALDI SOZIAL EGOERAREN AURREAN MOBILIZAZIOAREN ALDEKO APUSTUAN BERRESTEN GARA.

